

7. GIZA EHUNAK

1. Osatu hurrengo esaldiak:
 - a. EHUNAK _____ bera betetzen duten multzoak dira.
 - b. La motatako ehunak bereizten dira: ehun-_____, ehun-_____, _____ ehuna eta _____ ehuna.
 - c. EHUN-EPITELIAL motak: _____ eta _____.
 - d. EHUN KONEKTIBOAK motak: _____, _____ eta _____.
 - e. GIHAR EHUN motak: _____, _____ eta _____.
 - f. NERBIO-EHUNA motak: _____ eta _____.
2. **EHUN EPITELIALEI** dagozkien kontzetuak egia edo gezurra diren esan:
 - a. Zelulak borobilak dira.
 - b. Zelulak poliedro forma dute.
 - c. Geruzatan antolatuta daude.
 - d. Zelulartean substantzia asko izaten dute.
 - e. 5 mota daude.
 - f. 2 mota daude: Estaldura-epitelioak eta guruin-epitelioak.
 - g. Estaldura-epitelioak gainazalak estaltzen ditu.
 - h. Estaldura-epitelioen funtzioa: mugimendua egitea eta nerbio bulkada transmititzea.
 - i. Estaldura-epitelioen funtzioa: babesa, mugatzea eta substantzien trukea ahalbidetzea.
 - j. Estaldura-epitelioen adibideak: hezurraz, odola, giharra.
 - k. Estaldura-epitelioe adibideak: epidermisa, muki-mintza eta endotelioa.
 - l. Guruin-epitelioak, guruinak eratzen dituzten ehunak dira.
 - m. 3 guruin-epitelio mota daude: guruin exokrinoak, guruin endokrinoak eta guruin mixtoak.
 - n. Guruin exokrinoak, substantziak gorputzetik kanpo jariatzen dituzte.
 - o. Guruin endokrinoek, substantziak barrunbe batera jariatzen dituzte.

3. **EHUN KONEKTIBOEI** dagozkien kontzeptuak egia edo gezurra diren esan:

- a. Ehunak elkarren artean konektatzen dituztelako dute izen hau.
- b. 3 osagai dituzte: zelulak, zuntzak eta matrizea.
- c. 3 mota: hezur-ehuna, gantz-ehuna eta odol-ehuna.
- d. Hezur-ehuna: kondrozitoak dira zelulak.
- e. Gantz-ehuna: adipozitoak elkartzean sortzen da.
- f. Odol-ehuna: Solido egoeran dagoen ehun bakarra da.
- g. Ehun konjuntiboa osatzen duten zelula garrantzitsuenak fibroblastoak dira.
- h. Kartilago-ehuna, zuntz malgu asko ditu.

4. **GIHAR-EHUNEI** dagozkien kontzeptuak egia edo gezurra diren esan:

- a. Zelulak laburrak dira.
- b. Zelulak uzkurkorak dira.
- c. 3 motatako ehunak daude.
- d. Gihar-ehun leunak, borondatezko uzkurtzea du.
- e. Gihar-ehun ildaskatua, eskeleto-giharrak eratzen ditu.
- f. Bihotzeko gihar-ehuna, ez-borondatezko uzkurtzea du.
- g. Gihar-ehun leunak, erraietako giharrak eratzen ditu.
- h. Miozito edo gihar-zuntzak dira gihar-ehunak osatzen dituzten zelulak.

5. **NERBIO-EHUNEI** dagozkien kontzeptuak egia edo gezurra diren esan:

- a. Informazioa jaso eta bidaltzen dute.
- b. Neuronak, izar itxura duten zelulak dira.
- c. Zelula glialak, funtzio desberdinak egiten dituzte.
- d. Zelula glialak, nerbio-bulkadak transmititzen dituzte.